

Sharenting

a!

Nik ere
badut
zer esana!

#likezibereskubideak

**Zure Seme-Alaben Irudiak
sare sozialetan partekatzen
al dituzu?**

Bada, pentsatzeko tarte bat hartu.





Guraso zaren aldetik, zure seme-alaben irudia, identitatea zein intimitatea babesteko betebeharra duzu. Euren eskubidea da eta, argazki bat partekatzean, horiek urratzeko arriskua duzu.



Haurrarentzat eredu izatea dagokizunez, Sarean "portaera onak" sustatzen ahalegindu beharko zenuke. Zentzu horretan, haren baimenik gabe irudi bat partekatzea ez da bidezkoa.



Nola sentitu daiteke zure seme-alaba zuk argazki hori partekatzean? Bere azalean jarri zaitez eta argitaratutako edukiek bere etorkizunean eragina izan dezaketela pentsatu.





Sare sozial batean zer bait argitaratzen duzun unean, eskuetatik ihes egiten dizu, horren gaineko kontrola betirako galtzen duzulako. Zurea zen irudia jada ez da zurea izango, eta horrek ustekabeko ondorioak ekar ditzake.



Pribatutasun-politikak ondo ezagutzen eta ulertzen al dituzu? Arreta berezia eskaini honi, zenbait kasutan ez baita batere erraza sare sozialek dituzten kudeaketa-arauak ulertzea; eta ondorioz, nahi ez dugun moduan jokatu dezakegu.

Argazki bat partekatuz gero...

Gogoan izan



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua





Partekatutako irudietan adinez txikia egoera konprometituetan ez agertzea gomendatzen da. Beti jantzita aterako da, eta bere aurpegia ikusten ez bada, hobe.



Argazkiari pribatutasun-maila behar bezala jarri behar zenioke. Beraz, argitaratu baino lehen, irudia non, nola eta norekin partekatzen duzun ondo pentsatu.



Partekatzeko orduan, posta elektronikoa edo bat-bateko mezularitza (whatsapp) komenigarriagoak dira. Nolanahi ere, besteei, zure baimenik gabe irudi hori erabili ezin dutela argi eta garbi adierazi.







Argazki bat Sarera igotzeko ez duzu zertan haurraren berezko kontu bat sortu beharrik. Zure kontutik egin ezazu, betiere tokiari (espazio fisikoari) buruzko informaziorik edo datu zehatzik eman gabe (GPS-a desaktibatu).



Azkenik, seme-alaben izenekin, Google-eko alertak aktibatu ditzakezu. Horrela, norbaitek haien buruzko informazioa argitaratzen badu, Google-eko bilatzaileak zuzenean abisatuko zaitu.





Gogoratu, euren eskubidea da eta zure betebeharra!
#likezibereskubideak

kulturadigitala.eus



unicef 

GAZTEMATIKA
Departamentuaren Komunikazioa

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ORAIN
GAZTEAK